

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2015eko APIRILAREN 16an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2015eko apirilaren 16an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea eta Aritz Usandizaga Larrañaga

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga
...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
- **2015eko martxoaren 5ean egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo eskolako komunaren moldaketaren proiektuaren berri ematea eta dagokion lizitazioari hasiera ematea, hala bada.**
- 4. Larraulgo Eskolak eginiko diru-laguntza eskaera, igerilekuko ikastaroetako.**
- 5. 2015 urterako Tolosaldea Garatzen egin beharreko ekarpenaren onespena, hala bada.**
- 6. Larraulgo Larrola baserriko sailetan biltegi osagarria eraikitzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo departamentuak eginiko txostenaren berri ematea, hala bada.**
- 7. Elutsa etxearen ondoan dagoen oilategia handitzeko eta aterpe bat egiteko obra baimena eskaera, G.J.**
- 8. Madariaga granjan jarduerarik ez dagoenez zabor tasaren erroldan baja ematea, G.J.**
- 9. Gurutzeaga baserri aurrekaldea porlarekin berdindu (35m²) eta fatxada nagusian toldo bat jartzeko obra baimena eskaera, A.M.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

10. Beobidegain 18-eskubian egindako ezkutuko obren azterketa, hala bada.
11. I.S. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
12. 2014 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaeren onespena, hala bada.
13. Zaborren eta konpostagailuen ezarketaren azken berri ematea, hala bada.
14. Fakturak eta ordainketak.
15. Beste batzuk.
16. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2015 urteko martxoaren 5eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

10/2015 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 7koa, 0026938349 zenbakia duen faktura ezabatzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO ESKOLAKO KOMUNEN MOLDAKETAREN PROIEKTUAREN BERRI EMATEA ETA DAGOKION LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA, HALA BADA


Ikusirik Larraulgo eskolan komunen moldaketa lanak egin behar direla. Horretarako Eba Erkizia Brion Udal Teknikariak dagokion proiektua prestatu delarik.

Ikusirik lanak irailerako bukatuta egon behar dutela.

Ikusirik aipaturiko lanak esleitzeko kontratu txiki baten prozedura jarraitu behar dutela, kontutan izanik obraren kostua.

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Eba Erkizia Udal Teknikariak prestatutako Larraulgo eskolako komunen moldaketaren proiektua onestea.

BIGARRENA: Larraulgo eskolako komunen moldaketaren lanak gauzatzeko lizitazioari hasiera ematea. Horretarako hiru aurrekontu eskatuko direlarik. Kontratatik ziurtatu beharko dutelarik, aipaturiko lanak irailaren 1erako bukatuko dituztela.

HIRUGARRENA: Aipaturiko obra burutzeko ondorengoa kontratistei aurrekontuak eskatzea: Murgil, Ostarbi eta Pedro Diaz Legarre.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO ESKOLAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, IGERILEKUKO IKASTAROETARAKO

Ikusirik Larraulgo eskolak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

“Larraulgo Udalak eta Guraso Elkarteak adostua dugunez, eskolako haurrek egiten duten igerilekuko ikastaroaren zati bat Udalak finantzatuko du: hain zuzen, kiroldegiko kostuaren erdia.

2014/2015 ikasturteari dagokionez, igeriketa ikastaroa Larraulgo eskolako 6 haurrek egin dute.

Kiroldegiko gastua 27,18€koa izan da umeko.

Sei ikasleei zegokien gastua 163,13€koa izan da, beraz.

Udalari gastu horren erdia dagokio ordaintzea: 81,56€ guztira.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Larraulgo Murgil Guraso Elkarteari 81,56€ euro ordaintzea, 2014/2015 ikasturteko igerilekuko ikastaroaren gastua finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA: 81,56 eurotako gastua onestea.

BOSTGARREN PUNTUA

2015 URTERAKO TOLOSALDEA GARATZEN-i EGIN BEHARREKO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2014ko abenduak 15eko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2015 urterako



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 3.199,00 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen da, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2015urteko ekarpena onestea, guztia, 3.199,00 euro direlarik. Lehen ekarpena burutzea onesten da, hau da, 1.599,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 3.199,00 eurotako gastua onestea.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO LARROLA BASERRIKO SAILETAN BILTEGI OSAGARRIA ERAIKITZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENEN ETA TURISMOKO DEPARTAMENTUAK EGINIKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA


Ikusirik J.T. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Larrola baserrian dagoen esnetako behi jarduerari loturik biltegi osagarri bat egiteko obra baimena eskaera egin zuen.

Ikusirik 2014ko azaroaren 6an egindako Udalbatzarrean ondorengoa erabaki zela: “*J.T. Jaunak, Udaletxe honetan aurkeztutako, Larraulgo Larrola abeltzaintzako ustiatzean biltegi osagarri bat eraikitzeke Ion Ander Leñena ingeniari agronomoak sinatutako aurreproiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentura igorri, azken honek dagokion txostena egin dezan.*”

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuak igorri duela dagokion txostena, non ondorengoa dioen:

“Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak lurzoru hiritarrezinako baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituen azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuaren 1. Artikuluan aipatzen den txostena egin dezan eskatuz, udal horrek egin duen eskaerari erantzunez, Departamentu honek ondoko txosten hau prestatu du:

LARRAULGO LARROLA BASERRIKO SAILETAN BILTEGI OSAGARRIA ERAIKI NAHI DUTELA, HANGO UDALAK EGINDAKO TXOSTEN ESKAERARI EMANDAKO ERANTZUNA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Txosten hau Larraulgo Udalaren eskariz egin dugu, 1998ko azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuak, lurzoru hiritarrezinean eraikitzeako baimen eta lizentziak emateko jarduketan koordinazioari buruzkoak, xedatzen duenaren arabera, hartara egin nahi den eraikina egiteko baimena eman aurretik nekazaritza-abeltzaintza ustiapenarekiko zer lotura duen baloratzeko, eta zehazki, proposatutako eraikina finkaren izaera eta erabilerarekin egokia den adierazteko.

Obrak egiteko lizentziaren eskatzailea, J.T.O. jauna, 1995az geroztik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritza Ustialekuen Erroldan inskribatua dago eta gaur egun Larraulgo Larrola baserrian dagoen abeltzaintza-nekazaritzako ustialekuaren titular ordezkari azaltzen da. Ustialeku horren jarduera, batez ere behi esnea ekoiztera bideratuta dago eta horretarako 2015 buru inguru izan ohi dituzte behi, bigantxa eta txekorren artean. Horrez gain 105 bat ardik osatzen duten artaldea gobernatzen dute eta mota ezberdineko laborantzak ere egiten dituzte (baratza, babarruna, sagastia, etab.). Beraz, ustialekuan dauden abereak 175 ALU (abere larri unitateak) inguruko kopurua osatzen dute.


Gaur egungo instalakuntzetan tresnak eta pentsuak modu egokian biltegitratzeko toki beharra ikusita, eta baita txekor gazteak toki beharra ikusita, eta baita txekor gazteak edukitzeko toki beharra dagoenez ere, eskatzailearen asmoa da ukuilu handiaren aldamenean 603m²-ko azalera izango lukeen biltegi berria eraikitzea, behar diren ganadu janariak eta lanabesak egoki gorde ahal izateko. Proposatutako eraikinaren neurriak gutxi gora behera 40,20x15,00 m kanpoz kanpo dira.

Nekazaritza Ustialekuen Erroldan jasota dauden datuen arabera, gaur egungo ustialekuak badauka, nahikoa eta gehiago, maila ekonomikoaren aldetik, 82/1998 Foru Dekretuak nekazal eraikin berriak egiteko eskatzen duen gutxieneko bideragarritasuna.

Interesatuak nekazaritzan jarduteko gaitasun profesionala egiaztatuta dauka, kasu honetan urte asko daramatzalako lanean bere ustialekuan; beraz, betetzen du 1998ko azaroaren 24ko 82/98 Foru Dekretuak eta departamentu honek jarritako irizpideetan eskatzen dena.

Hori guztia kontutan hartuta, eta 82/1998 Foru Dekretuaren ondorioetarako, Landa Garapeneko eta Nekazaritza Egituretako Zerbitzu honen aldetik ez dago eragozpenik Larrola ustiategiko sailetan 603m²-ko azalera kanpoz-kanpo duen nekazal biltegi bat eraikitzeko, nahiz aparteko eraikin batean nahiz lehen dagoen bati erantsita.

Dena dela, Larraulgo Udalari jakinarazi nahi diogu txosten honetan ez ditugula baloratzen eraikin berri horren hirigintzaren alderdiak edo bestelakoak, horien artean kokaleku zehatza, proiektu arkitektonikoa, eta higiene, osasun eta ingurumeneko arauak betetzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Jakin dezazun eta bidezkoak diren ondorioetarako adierazten dizut hori.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak igorritako txostena, J.T.O. jaunari jakinaraztea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ELUTSA ETXEAREN ONDOAN DAGOEN OILATEGIA HANDITZEKO ETA ATERPE BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, G.J.

Ikusirik G.J. jaunak eginiko eskaera, non Elutsa etxearen ondoan dagoen oilategia handitzeko eta aterpe bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2015eko apirilaren 7an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO ELUTSA ETXEKO LURSAILEAN DAGOEN TXABOLA HANDITZEKO ESKAERARI TXOSTEN TEKNIKOA

G.J.S. jaunak, Larraulgo Elutsa etxearen lursailean dagoen oilategia handitu eta aterpe bat jartzeko asmoa azaltzen du. Honetarako txabolaren oinaren plano bat, gaur eguneko egoera eta aldatua azaltzen dituen 3 argazki eta aurrekontu bat aurkezten ditu obra baimena eskuratzeko. Dokumentazioa azterturik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Eskarian, gaur eguneko 4x3 m-ko eraikinari, 2m-ko zabalpen bat egin nahi zaiola azaltzen da, ondorioz, 20m²-ko azalera eraikigarria izango duen txabola bat lortuaz.


Txabola honek, hego ekialdean 10m²-ko azalerako aterpe ireki bat izango luke.

Paretak kanpotik oholezkoak izango dira, teilatuaren egitura egurrezkoa litzateke eta honen bukaera teilazkoa.

Txabola handitzeko aurkeztu den aurrekontua 1.700€-koa da.

Elutsa etxea Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan dago, D.20 produkzio zonaldean. Katastroaren arabera, Elutsa etxea kokatua dagoen lursailak, 1 poligonoko 77 lursaila hain zuzen, 12.166m²-ko azalera bat du.

Larraulgo Arau Subsidiarioen lur hiritargarriezenaren 72º artikulua esaten duen bezala, nekazal erabilera ez profesionalizatuentzat gehienez egin daitekeen



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

txabolek 20m²-ko azalera eraikigarria izango dute, beti ere txabola honi loturiko lursailak 2.500m² baino gehiago baditu.

Artículo 72.- Usos agrarios no profesionalizados

Reciben la denominación de usos agrarios no profesionalizados aquellas explotaciones agrarias que no reúnen los requisitos de viabilidad y autonomía productivas exigidos para ser consideradas como usos de explotación agraria común. Deberán cumplir las siguientes exigencias:

a) Su implantación no exigirá la emisión del informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Parcela mínima. La parcela o huerta labrada y trabajada de forma permanente que contenga una txabola tendrá una superficie mínima de 2.500m².

c) Condiciones de edificación: se autoriza la construcción de una txabola por parcela destinada a la guarda de aperos.

Asimismo se permite la construcción de cubriciones para protección del ganado, siempre que sean abiertas por sus laterales.

d) Superficie máxima construida: 20m² para las txabolas destinadas a la guarda de aperos.

e) Condiciones de la licencia. La licencia municipal se concederá siempre en precario. En caso de que un mismo titular trabajara dos o más parcelas situadas en el mismo entorno, solamente se autorizará la construcción de una txabola o caseta.

Kanpo itxurari buruzko 48º artikulua berriz honela dio:

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.


-Con caracter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

-Las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad.

Eraikinaren egurrezko bukaerak inguruko ohiko eraikinen bukaerekin bat egin dezake.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Honen arabera, dokumentazioan azaltzen den lursailaren eta eraikinaren azalera, eta txabolaren kanpo itxura, egokiak dira. Hau honela izanik, bidezkoa iruditzen zait obra baimena ematea.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Gotzon Jauregi zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: G.J. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Elutsa etxeke lursailean dagoen txabola handitzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

MADARIAGA GRANJAN JARDUERARIK EZ DAGOENEZ ZABOR TASAREN ERROLDAN BAJA EMATEA, G.J.

Ikusirik, G.J. jaunak eginiko eskaera, non Madariaga granjan jarduerarik ez dagoenez, zabor tasaren erroldan baja emateko eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Gotzon Jauregi zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Madariaga granjan jarduerarik ez dagoenez, zabor tasaren erroldan baja ematea.

BIGARRENA: Ordenantza fiskalak aldatzeko garaia iristean, jarduerari baja eman diren lokalen gaia aztertzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

GURUTZEAGA BASERRI AURREKALDEA PORLANEKIN BERDINDU (35m2) ETA FATXADA NAGUSIAN TOLDO BAT JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.M.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Jon Tejeria zinegotzia arratsaldeko 20.00 orduetan Udalbatza honetara bertaratzen da.

Ikusirik A.M. andreak eginiko eskaera, non Gurutzeaga baserri aurrekaldea porlanarekin berdindu (35m²) eta fatxada nagusian toldo bat jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.M. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Gurutzeaga baserri aurrekaldea porlanarekin berdindu eta fatxada nagusian toldo bat jartzeko obra baimena ematen da.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

BEOBIDEGAIN 18-ESKUBIAN EGINDAKO EZKUTUKO OBREN AZTERKETA, HALA BADA.


Ikusirik 2013ko otsailaren 14an izandako Udalbatzarrean ondorengo erabaki zela:

“ PRIMERO: Denegar la solicitud realizada por A.A.J., esto es, denegar la solicitud de obras para la realización de una pérgola con cierre de cristal en Beobidegain 18-dch. De Larraul, por el motivo establecido en el informe redactado por la Técnico Municipal.

SEGUNDO: Notificar a Don A.A.J., que cumpliendo con los requisitos establecidos en el informe redactado por la Técnico Municipal, podría ser legalizada la pérgola realizada.

“... si la cobertura se realizara mediante un toldo móvil, plantas, brezos o similares, cabría la opción de autorizar la estructura de madera.”

Ikusirik, Udaletxe hau jakitun izan dela, A.A.J. jaunak Beobidegain 18 esk.-an egindako egurrezko estruktura ganean kristala jarri duela. Alkateak proposatzen duelarik kristala kentzeko errekerimendua egitea A.A.J. jaunari.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, eta batzarkideak ados jartzen ez direnez, bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

- Aldeko botuak: Mujika, Jauregi eta Aranzabal alkate/zinegotziak.
- Kontrako botuak: 0
- Abstentzioak: Irazu eta Tejeria zinegotziak .

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengoz ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.A.J. jaunari jakinarazi, Beobidegain 18 esk. Egindako egurrezko estruktura gainean jarritako kristala kendu egin behar duela, 2013ko otsailaren 14an, izandako Udalbatzarrean hartutako erabakia aintzat harturik. Errekerimendu hau gauzatzeko, jakinarazpen hau jasotzen duen hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epea izango duelarik.

BIGARRENA: A.A.J. jaunari jakinarazi, hilabeteko epean aipaturiko kristala kentzen ez badu, Udaletxeak kenduko duela, eragiten diren gastuak A.A.J. ren kargura izango direlarik.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri A.A.J. jaunari ematea.

HAMAİKAGARREN PUNTUA

I.S. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik I.S. jaunak eginiko eskaera, non Udalari eskatzen dion, Olatza baserrira doan pistaren txukunketa eta konponketa lanak egin ditzala.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.S. jaunari jakitera ematea, eskatutako herri bidea txukunduko dela, premian dauden beste herri bideekin batera, Udalak horretarako baliabideak izaten dituenan.

BIGARRENA: I.S. jaunari jakitera ematea, bidearen sangrak eta kunetak txukundu direla.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2015 URTERAKO UDAL ZERGA-TASEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik 2015 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2015eko otsailaren 2tik martxoaren 2 arte epea ireki zela, 6 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2015 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

- O.O.R.: IBI -famili ugaria.
- M.S.G.: IBI -famili ugaria.
- O.U.A.: IBI -famili ugaria.
- A.A.J. IBI –Eguzki plakak.
- I.O.D.: IBI –Eguzki plakak.
- I.U.A.: Ibilgailu historikoak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

HAMAIRUGARREN PUNTUA

ZABORREN ETA KONPOSTAGAILUEN EZARKETAREN AZKEN BERRI EMATEA, HALA BADA.

Alkate jaunak batzarkideei jakitera ematen die, kontenedore txikien ezarketa burutzeko kandaduen zain daudela. Kontenedoreak iritsi direla baina kandaduak ez. Hauek iristean, giltzaren banaketa egingo delarik.


Konpostagailuen gaiari buruz, Alkate jaunak batzarkideei jakitera ematen die, 6 pertsona gelditzen direla hauek jarri gabe, eta hauei idatzi bat bidali zaiela. Momentu honetan 3 edo 4 falta omen dira konpostagailua jarri duten ala ez konfirmatzeko. Beraz, batzarkideei proposatzen die, 2015 urteko lehen hiruhileko zabor tasa, tasaren prezio normala kobratzea, ezarketari prorroga bat emanaz.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, erabakitzen dute, 2015. Lehen hiruhileko zabor tasa, tasaren prezio normala kobratzea.

HAMALAU GARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK


Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

AKETEGI	5,59
JOXAN ALTUNA	567,23
BELARMENDI	208,12
GIPUZKOAKO URAK	3.647,96
FERRETERIA BARBE	109,72
LIDOINSA	932,00
FONGUI	36,70
AITZOL	56,84
TOLOMENDI	150,00
JON TEJERIA OTERMIN	100,00
GARAJE EGIN	12,10
BULEGOAK	107,80
TOLOMENDI	150,00
VICENTE ERROTULAZIOA	145,20
BELARMENDI	377,82
ZIZURKIL ELECTRICIDAD	678,17
LIDOINSA	790,43
ULAHI	363,00
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.566,16
KOLDO JAUREGI	3.027,66
CORREOS	1,97
CORREOS	1,68
CORREOS	8,56
BABESA SUZAI	712,28
GAS NATURAL FENOSA	125,96
GAS NATURAL FENOSA	203,63
GAS NATURAL FENOSA	16,23
GAS NATURAL FENOSA	632,50
GAS NATURAL FENOSA	222,25
GAS NATURAL FENOSA	489,92
GAS NATURAL FENOSA	70,48
IBERDROLA	10,94
IBERDROLA	13,49
REPSOL	235,45
REPSOL	612,62
REPSOL	62,45
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	48,93
MOVISTAR	57,82
MOVISTAR	132,40
MOVISTAR	19,19
MOVISTAR	57,40



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udalbatzarrak **ah**o batez hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **16.786,8** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMASEIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

16.1.OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA

Osasun publikoaren aldeko mozioa aurkezten da, non ondorengo dioen:


“Iragan abenduan, Osasun Saileko arduedunek, Guillermo Viñegra Sailburu ordeak, Rafael Uribarren Gipuzkoako osasun arduradunak eta Iñaki Berraondok (Aseguramendu eta kontratazio sanitarioko zuzendaria), Tolosaldeako alkateon ordezkari bati, OSI, Eskualdeko osasun arreta antolakuntza integrala, aurkeztu zieten.

Aurkezpen honen bidez, 2015arekin batera, OSIa martxan jarriko zela iragarri zuten eta honen bidez Tolosaldeko osasun arretak hobekuntzak izango zituela esan ere bai.

OSIak Tolosaldean gauza gutxi aldatuko ditu, arazoa ez baita OSIa ezartzea, osasun zerbitzu publikoan klinika pribatu bat egotea baizik.

Klinika pribatuak, ezinezko egiten du zerbitzu integral eta koordinatu bat izatea:

- *Nola integratu bi sistema, baten eta bestearen arteko helburuak eta lanerako erak desberdinak izanda. Mila bider adierazi bezala, sistema publikoak herritarrei zerbitzu unibertsala eta kalitatezkoa ematea du helburu, sistema pribatuak berriz, irabazi ekonomikoak. Ondorioz, klinikak herritarren osasunarekin negozio egiteko bitarteko guztiak erabiliko ditu bere enpresa jarduerari ahal duen errentagarritasun handiena ateratzeko. Horretarako, pertsonal ratio txikiagoak edota bestelako neurriak hartuz. Eta neurri horiek kalitatean eragina dute.*
- *Nola integratuko dira bi sistemak, besteak beste, programa informatikoak ez badaude oraindik orain bateratuta.*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udal honen ustez, OSI honen aurkezpena, klinika pribatuaren legitimazioa eta onarpena gauzatzeko beste pauso bat da. Beste pauso bat, sistemaren privatizazioaren bidean.

Eskualde honetako OSI egoki bakarra, gainerako eskualde guztietakoa bezala, gestio eta arreta publiko integrala, %100ekoa, duena izan behar du.

Legealdi oso bat daramagu udal ordezkariok, eta beste eragile batzuk oraindik denbora gehiago, berdina adierazten: Osasun Zerbitzu publikoaren beharra eta honen erakusle Tolosaldean buruturiko, onarturiko eta antolaturiko:

Manifestazio, firma bilketa, mozio, adierazpen, agerraldi e.a.

Honen aurrean EJko Osasun Saila, honen guztiaren aurka agertu da, eta Tolosaldeko osasun zerbitzuaren privatizazioa inposatzen jarraitu du. Udal ordezkari, eragile eta herritarren gehiengoaren nahiari bizkar ematen jarraitu du.

Sarri adierazi moduan, Tolosaldean egiten ari direna, esperimentu bat da, privatizazioaren esperimentua. Zerbitzu unibertsal eta publiko bat gutxi batzuen negozio bilakatzeko froga.

Sistema publikoan sinesten dugu, sistema publikoa delako osasun arreta hoberena eskaintzen duena, inori bizkar ematen ez diona eta benetan denona dena.


Ez dugu beste inon baina gehiago nahi, baina ezta gutxiago ere, berdina, gure eskubideak, besteenak adina balio dutelako, osasun sistema publikoa nahi dugu.

Eta hau gauzatzeko ezinbestekoa da bertako eragileen iritzia jaso eta kontutan hartzea. Udala horretarako prest dago, sistema publiko horren eraikuntzan, antolaketan, parte hartzeko, lanerako, ez ordea OSI publiko-pribatu batetako organo parte hartzailetara joan eta inposaketa hau legitimatzeko.

Inoiz ez da berandu hartutako erabaki okerrak zuzentzeko, Madrident gertatu bezala adibidez. Tolosaldeko bizilagunen osasuna dago jokoan, eta horrek edozein hitzarmenek baino balio handiagoa du.

Honen aurrean Larraulgo Udalak eskatzen du:

- *Gainontzeko eskualdeetan bezala, gurean ere osasun zerbitzu publikoa bermatzea, gestio publikoa %100ean oinarri izango duena.*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- *2011ko azaro aurretik anbulategietan eskaintzen ziren espezialitate zerbitzu guztiak berriz ere bertan ezartzea.*
- *Klinikaren publikotasuna gauzatzeko ekinbideak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari hastea eskatzea.*
- *Mozio hau Eusko Legebiltzarra osatzen duten talde parlamentarioei, Osasun Sailburuari eta Gipuzkoako BBNetako talde politikoei igortzea.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Osasun publikoaren aldeko mozioa bere osotasunean onestu du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA